XXX

# Mendi eta abentura astea

2023

# ORMAIZTEGI

## Azaroaren 14tik 19ra



**14** **ASTEARTEA** | 19:00

Gizarte etxea · Euskaraz

Igone Mariezkurrena

***WESTFJORDS: ISLANDIA EZEZAGUNA BIZIKLETAZ***

Zirkulu polar artikotik 50 kilometro eskasera dagoen Westfjords eskualdea iskin ezezaguna da Islandian. Ring Road bide sonatua ez da bertara heltzen eta, beraz, ezta urtero herrialdera iristen diren milioika bisitariak ere. Tundrako klima izugarri aldakorra, haizetsua eta hotza da, eta gogo-gorputzarentzat benetako erronka da munduko bazter hau bizikletaz eta autosufizientzia eran esploratzea. Zenbaiten hitzetan, Europako azken bazter basatia da.



**15** **ASTEAZKENA** | 19:00

Gizarte etxea · Euskaraz

Joseba Iztueta

***ZANSKAR, AZTARNA BERRIEN BILA***

Indiako Himalaian kokatzen da Zanskar bailara. Izena duten gailurretatik urrun dago, granitozko dorre eta mendi pikoez inguratua. Abentura eremua mendi eskaladarako. Bertan irekitako harkaitz bide berrien eta lehen aldiz zapaldutako gailurrez hitz egingo da ikusentzunezko honetan.



**16** **OSTEGUNA** | 19:00

Gizarte etxea · Euskaraz

Joxe Ramón Agirre “Marron”

***KARAKORUN OINEZ ETA HEGAZ***

Ametsetatik nekez bizi daiteke, baina amets egin gabe are nekezago. Gizakiaren aspaldiko ametsa da hegan egitea, eta aspaldiko urteotan hegan egitea du amets Joxe Ramon Agirre Marron mendizaleak. Ibilbide horretan Mattin Iñiguez Ormazabal batu zaio amets berriekin, elkarrekin Baltoroko mendia; Trango dorreak , Broak peak eta K2 mendia alboan dutela egan egitera gonbidatzen gaituzte. Mendizaletasunetik eta ametsetatik haratago, «zentzu ludiko, poetiko eta erromantikoa» duen.



**17** **OSTIRALA** | 19:00

Gizarte etxea · Euskaraz

Mikel Sáez De Urabain

***BHAGIRATHI 3 HEGO-MENDEBALDE ERTZA***

Bhagirati 3 ra egindako espedizioa, Indiako Himalaiako Garwald eremuan. 6454m dituen gailur tente honetan, hego mendebaldeko ertza eskalatzen bizitakoa kontatuko da, eskalada gogor eta tentea.

**19** **IGANDEA** | 9:00

Udaletxea



Argazkia: Lierni Unzurrunzaga Pildain

***MENDI IBILALDIA -***
***SALIDA MONTAÑERA***

Udaletxea – Arandia – Urbizu – Zelandieta – Española – Liernia – Ormaiztegiko plaza (2 ordu)

Izen-ematea- **Inscripciones:**
Azaroak 16 arte
kultura@ormaiztegi.eus

Amaieran

**IGANDEA** | 18:30

Eliz-atarian

***GAZTINA JATEA -***
***CASTAÑADA***

San Andres herri eskolako guraso elkarteak antolatuta

eskuragarri

App Store · Google play

**ORMAIZTEGI APP**

---

O.K.E. ORMAIZTEGI · Ormaiztegiko Udala · ORMAIZTEGIKO GURASO ELKARTEA

www.ormaiztegi.eus